

Aretxagazeta

Aretxabaleta ● 2000ko maiatzaren 25a ● 191. zka.



Muruko urrezko ezteiak

horma armairuak



tolesgarriak

*horma armairu
irristagarriak*



AZKARATE AROSZTEGIA

ARETXABAETA 943 77 01 24
BERGARA 943 76 47 19

*Ateak, leihoak,
horma armairuak, tarimak
eta parketak*

ARDATZA

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea. Tf.: 943 76 18 93 • BERGARA



Neurrira egindako estoreak, kortinak, bandoak, edredoiak, eta neurrira moztutako oihalak.

50 urte
Atxabalta
jazten...

ASENSIO

"Gran Hermano" programa ikusten duzu? Zein iritzi duzu?



Alvaro Astier

Ikusi izan dut. Ondo iruditzen zait. Hasieran apur bat faltua da, baina gero partaideak diren bezalakoak izaten hasen direnean hobeto dago.



Marga Yurrebaso

Bai, denbora pasarako besterik ez du balio. Montaje haundi bat da. Nobedadea da eta horregatik ikusten du jendeak. Bestalde, ez du ez kulturarik eta ez ezer erakusten.



Mikel Lopez

Ez, nahiz eta behin edo behin ikusi-dudan. Oso programa kaxkarra dela deritzot. Telebistan beste ezer ez dagoelako ikusten du jendeak.



Urri Urizar

Aurrekoan ikusi nuen. Egia esan ez dakit programa horren helburua zein den, ez dut fenomeno berri hau ulertzen. Dena dela, eurak gura dutena lortzen ari direla uste dut.

ESKUTITZA



GUTUNEN ARAUDIA

Aretxagazetara heltzen diren gutunak argitaratu ahal izateko honako baldintzak bete beharko ditu:

- Karta guztiek identifikatuta etorri beharko dute. Izen-abizenak eta telefonoa adierazita. Egilea talde bat denean, edo talde baten ordezkaria, talde izena onartuko da.
- Gehienez 200 hitzetako gutunak onartuko dira. Hortik gorakorik balego, erredakzioak laburtzeko eskubidea du. Aurrez egilearekin harremanetan jartzen saiatuko gara. Arau hauekin batera, gogoratu Aretxagazeta Durana kaleko 11. zenbakian dagoela. Bertako postontzian bota daitezke gutunak edo eta bestela, 151 postakutxatilara ere

bidal daitezke. Hau esan ondoren, zuen gutunen zain gelditzen gara.

ARETXAGAZETAKO
BATZORDEA

Aretxagazeta

191. zenbakia
2000ko maiatzaren 25ean.
Azaleko eta erreportaje argazkiak:
Argazki artxiboa.

Durana 11, 151 postakutxatila
Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es.
Argitaratzailea: Aretxabaletako
komunikabideak-Loramendi elkarte.

Zuzendaria: Edorta Mendieta.
Erredakzio-kontseilua:
Begoña Arenaza, Arrate Arkauz,
Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza
Antxia, Mireia Uribetxebarria, Goretti
Ayastuy.

Erredakzio arduraduna eta publizitate
arduraduna:
Mirari Altube eta Iratxe Bengoa.
Kolaboratzaileak:
Mikel Arroia, M. J. Aretxaga, Joseba
Lopez de Armentia, Inma Miguel, Amaia
Bereibar, Aitor Antxia, Felis Beltran de
Heredia, Loramendi E. E., Udala.
Banatzaileak:
Aitor Urrutia, Nerea Lete, Aiora
Filarmendi.

Inprimategia:
Eguzkigra, Koop. Elk.
Tirada: 2.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.
Lege gordailua: S5378 / 94.
ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Erakunde hauen laguntzaz



Aretxabaletako Udala



Gipuzkoako Foru
Aldundia



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila

Giro aparta Euskararen egunean, Otala Zelaiko erromeria, barrez, atzeratu egin zen

Giro aparta egon zen zapatuan ospatutako Euskararen egunean. Eguraldi onak lagunduta, jende ugari pilatu zen Mitarte eta Durana kaleetan. Egunean zehar egon zen bai zer ikusi, zer entzun eta baita zer jan ere: eskulan erakusketa, gaztai mokadutxoak sagardoz lagunduta, Egaña eta Lizaso

bertsolarien kontuak... Babak ere goxo-goxoak prestatu ei zituzten. Ostein lagun arteko jokuak, umeen dantzak, eta nola ez, Larraín dantza.

Hurrengo eguneko ekintzak, barrez, eguraldi txarra zela eta atzeratu egin behar izan ziren. Momentuz ez da zehaztu noiz egingo den.



■ Trikitilariak giro ederra sortu zuten goizean.



■ Hori da eta Dabid! Ia ia zeruraino.



■ Txalapartaren soinura bat baino gehiago hurbildu zen.



■ Babak astun samarrak bero onekin, baina ederrak zeuden.

Okindegia - Gozategia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
Mitarte, 1 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta
Bertaño okina

Mobiliario
ARENZA

• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren, 3
Tel.: 943 77 11 76



Putz eta putz estanda egin arte.



Aguro, aguro, irabazlearentzat urdaiazpikoa!



Hau bai hau neska ausarta. Eta gainera, zelako estiloa.



Ohiturari jarraituz ilunkaran Larrain dantza Mitarten.



Gazteek presoek eskubideen aldeko kalejira antolatu zuten.

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tel.: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J

Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA
KALEFAZIOA

Tel.: 943 79 07 34
943 79 31 87

OSKAR
GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
ARETXABALETA

M

MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11
ARETXABALETA

Copreci kooperatibak ISO 14001 ziurtagiria jaso du

Aretxabaletako Copreci kooperatibari ISO 14001 ziurtagiria eman dio AENORrek ingurumena zaindu eta errespetatzeagatik. Estatu espainiarrean, Coprecik lan egiten duen sektorean eman den lehenengo ziurtagiria da ISO 14001 hori.

Sari gehiago jasotakoa

Coprecik etxekotresna elektrikoentzako osagaiak egiten ditu: elektrobonbak, programatzaileak, iturriak, balbulak... Aretxabaletako lantegia beti saiatu izan da ingurumena zaintzen eta errespetatzen eta 1989. urtetik aurrera kalitatea izan da bere helburu eta estrategia. Orduetik hainbat

sari jaso ditu, 1996an ISO 14000 Ingurugiroaren Ku-deaketa Ziurtagiria eskuratu zuen. Azkenengo saria, barrez, iaz jaso zuen Eusko Jaurlaritzako Industria Saialak emandako Kalitatezko Zilarrezko Q-a.

Aurrera begira ditzuten asmoak

Gaur egun Coprecik %25 murriztu ditu atmosferako igorpenak eta aurrera begira %60 gutxitzea da helburua. Horretarako disolbatzaileak erabiltzen dituzten makinaren ordez, ur eta xaboi bidez garbitzen diren makinak eta ur berroz koi-pea kentzen zaien makinak erabiltzen hasita dago.



Betidanik izan du Coprecik ingurumenarekiko kezka

ALMENEKO BIDEKURTZEA EGOKITZEKO ESKAERA EGINGO DU UDALAK

Aretxabaletako Udalak Almen inguruko bidekurtzea egokitzeko eskaera egingo dio Antxon Jaime errepide diputatuari. Sahiesbidea, Aretxabaletatik Eskoriatzara doan bidea eta Almeneko bidea bat egiten diren puntu honetan istripu ugari egon da, batzuk oso larriak gainera. Bidekurtze oso txarra izateaz gain, sahiesbidetik kotxeak abidura oso haundian etortzen dira eta istripu arriskua haundiagotu. Hau ikusita, Arrasateko Eroski parean dagoen biribilunearen antzeko zerbait egitea izan daitekeela irtenbidea uste da udalean, biribilunearekin kotxeen abiadura asko murriztuko litzateke eta.

■ 35 ORDUKO LAN ASTEA ONARTU DA UDALLETXEKO LANGILEENTZAT
Udaletxeke langileek 35 orduko lan astea izatea onartu zen maiatzaren 15ean egindako plenoan. Erabaki hau aurten bertan jarriko da indarrean eta bi urterako izango da. Honez gain soldata igoera ere onartu zen langile hauen ztat, %3 aurten eta KPI gehi 0,1 datorren urtean. EAJ eta EAKo hainbat zinegotzik lan ordutegiari buruzko kezka azaldu bazuten ere, zenbait moldaketa egin ostean ez da arazorik egotea espero.

■ ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA EMATEKO ENPRESA BAT HARTUKO DA
Etxez etxeko laguntza zerbitzua emateko enpresa bat hartzea onartu zuten zinegotziek aho batez joan zen astelehenean. Orain arte orduz kontratatu izan dira emakumeak, baina zerbitzu hobea eskaini eta emakumeek lan egoera hobea izan dezaten, hartu da erabaki hau. Enpresa hartzerako orduan enpresaren eta langileen esperientzia hartuko da kontuan prezioaz gain. Orain arte etxez etxeko laguntza ematen ibilitako emakumeek enpresa horretan sartzeko aukera izango dute.



- BILTEGI HOZKAILUA
- HARAGI PRODUKTOAK
- INDIOILARRA ZATITUTA
- UNTXIAK
- TXERRIKIAK
- IZOZTUAK
- BASERRIKO OILASKOAK

Basabe Poligonoa A-15
☎ 943 79 34 28 • Faxes: 943 79 34 28

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16-Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA



**Lurrindegia
Opari-denda**

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59



GOSE GREBARI AMAIERA EMANGO ZAIO PLAZAN KONTZENTRAZIOA EGINAZ

Aretxabaletako euskal presoak Euskal Herrira plataformak aste bukaeratan antolatutako gose greba herrikoari bukaera emango dio aste honetan. Kepa Urra gose greban egon den artean, gose greba egin dute hainbat herritarrek udaltxean lau aste bukaeratan zehar. Kepak eta gose greban zeuden gainontzeko euskal presoek, epe bat jarri behar eta zapatuan emango diote amaiera gose grebari. Kepa apirilaren 29an hasi zen eta zapatuan 30 egun beteko ditu. Tarte horretan hamabost kilo galdu baditu ere animo haundiz aurkitzen da.

Gose greba herrikoari bukaera emateko eguakotxean, hilak 26, kontzentrazioa egingo da Herriko plazan arratsaldeko 7etan. Euskal Herri mailan ere presoek elkartasuna adierazteko ekintza ugari egingo dira.



Bai saltzaileak bai erosleak pozik daude azoka Belorrietara pasatu izanaz

Astelehenetako azoka hemendik aurrera Belorrietan egingo da

Orain arte Gernika plazan egin den azoka astelehen honetan Belorrieta kalera pasatu da. Goizeko 6etarako lanean zebiltzan udaltzainak, aparkatuta zeuden kotxeak kendu eta azokako saltzaileei dendak non jarri esanaz. Belorrietan kotxeak uzten dituzten jabeek aste guztian zehar abisuak pasatu zizkietenez, astelehen goizean kotxe bakarren bat besterik ez zegoen bertan.

Leku hobea

Jesus fruitu eta barazki saltzailearen esanetan, leku berri honek bere

abantailak ditu, baina baita eragozpenak ere. "Lehen kamioia bertan izaten genuen, eskura, orain, berriz, jenero dena hustu beharra daukagu kamioia kanpoan uzteko". Orokorrean, ordea, leku hobea dela dio bai saltzaileentzat, bai erosleentzat leku gehiago egoteaz gain saltzeko daukaten jeneroa askoz hobeto ikusten da eta. "Neguan haize fina ibiliko da seguru asko eta udan eguzkiak bete-betean emango du, baina hori nonahi gertatzen zaigu, azken batean kalean lana egiten duenaren patua da".

CHARTER SUPERMERKATUA ZABALDUKO DA EROSKI EGON ZEN LEKUAN

Eroski taldeak Charter supermerkatua zabalduko du Aralar kalean, lehen ere Eroski egon zen lekuan. Aurreko Eroski dendaren neurri antzekoak izango ditu, 381 metro karratuko azalera erabilgarria. Janari denda izango da eta arrandegia ere izango du. Astelehen honetan egindako Gobernu Batzordean baita eman ostean, egokitzapen lanak egiten hasiko dira. Dendaren zabaltze data, barrez, momentuz ez dute zehazterik izan Eroski bulegoetan.

EZINDUEI ZUZENDUTAKO LAGUNTZAK ONARTU DIRA

Ezinduentzako banakako laguntzak ematea arautzen duen Foru Dekretua argitaratu zen 2000ko maiatzaren 8ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Zein laguntza mota onartuko den, baldintza orokorrrak eta bereziak, bete beharrekoak, baremo ekonomikoa eta gainontzeko informazio guztia azaltzen da bertan. Laguntza eskarera Gizarte zerbitzuen bitartez egin daiteke eta aurkezteko epea uztailaren 10ean bukatuko da.

FOTO

Urkiola
ARGAZKIAK

Herriko plaza, 5-behea
Tel.: 943 79 39 20
ARETXABAleta

Bataioak
Jaunartzeak
Ezkontzak

Albunak
Argazki kamarak
Markoak...

Bereziki: Harategia
Urdaitegia
Fruitategia

IMANOL
JANARI DENDA

Gorbea kalea ☎ 943 79 05 83



Umeendako
moda

Lezama merkatal
zentrua, 15
Tel.: 943 77 14 86
ARETXABAleta



■ **UME UGARI PASATU DA MIXIOETAKO ERAKUSKETATIK** Parrokiako sendotzako taldeek eta Hiruatxek antolatu duten mixioen gaineko erakusketak bisitari ugari izan ditu, umeak batez ere. Santa Rita eta Kurtzebarri eskoletako umeez gain katekesitik ere joan dira mixioko lurraldeetan jendea nola bizi den ezagutzera. Erakusketa eguakotxa arte zabalik egongo da.

■ **GAZTETXEKO BATZAR NAGUSIA EGIN DA** Datorren ekainaren 2an, eguakotxa, Gaztetzeko batzar nagusia egingo da. Bertan hiru gai izango dira aztergai: Galartzan egindako bileran esandakoa gogoratu eta bete, gaztetzeko obrak eta zerbitzarien kontua. Batzar honetan zerbitzariak aukeratu behar dira, beraz, interesa dutenek Urbaltzen, gaztetzean edo Ezkutun izena eman dezakete.

Martxan da Goitb telebista

Astelehen honetan bertan jarri da martxan eskualdeko telebista. Momentuz Arrasate, Aramaio, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz-Gatzagan ikusiko da nahiz eta eskualdeko berriak jorratu. Aurkezpen gisa, aste honetan herri hauetatik guztietatik programa bereziak egingo dira herriko alkatea eta euskara elkarteko lehendakariak elkarrizketatuz. Hasiera batean Aretxabaletatik ez da zuzeneko emisiorik egingo baina tresneria egokia jartzearekin batera hala izatea espero da.



Feritur azokan destinu turistiko ugari

Joan den astebukaeran Arrasaten egin zen Feritur azokan pakete eta destinu turistiko ugari ikusteko aukera izan zen. Aukera horien artean argazkian ikus daitekeen Debagoieneko estand-a ere bisitatu zuten bertara hurbildutakoek. Bertan Mankomunitatea turismo arloan burutzen ari den iharduerak erakutsi ziren.



NAGUSIEN DANTZA TALDEA SORTZEKO BATZARRA EGIN DA

Orain ia hiru hilabete nagusien dantza taldea birsortzeko deialdia egin zen Aretxagazetan. Baita arrakastatsua izan ere deialdia, 49 lagunek eman dute izena dantza talde horretan parte hartzeko. Lehenbailehen lanean hasi ahal izateko, datorren maiatzaren 27an, zapatua, batzarra egingo da dantzako txokoa, kuarteleko 2. pisuan, goizeko 11:00etan. Bertan, dantza klaseen ordutegia erabaki gura da, beraz, izena emandako denak joatea komeni da.

EUSKARAKO IKASTAROA EGIN DUTE UDALEKO LANGILEEK

Udaleko hainbat langilek euskarako arauari buruzko ikastaroa egin dute egunokaz euskara sailak antolatuta. Maiatzaren 15ean hasita 20 orduko ikastaroa izan da eta Aretxabaletako udal euskaltegia arduratu da emateaz. Euskaltzaindiak uneoro euskarari dagokion arau eta gomendio berriak ateratzen dituela kontuan izanda, udaleko langileak egunera egotea komeni dela uste izan du euskara batzordeak.

**EKINTZA GUZTIAK
UDALETXE
ZAHARREKO
ARETOAN
IZANGO DIRA**

loramendi
euskara elkarte

maiatza

26 eguakotxa

JUAN MARI BELTRAN. Hitzaldi kontzertua: Euskal Herriko soinu tresnak (22:30ean).

ekaina

1 eguena

PATZIKU PERURENA. Hitzaldia: Koloreak euskal usuarioan eta euskarak sorgindutako numeroak (19:00etan).

6 martizena

BIXENTE SERRANO IZKO. Hitzaldia: Nafarroako historia (19:00etan). Aste guztian zehar Nafarroako historiaren erakusketa egongo da.

8 eguena

PELLO ZABALA. Hitzaldia: Eguraldia, tenporak, mapa meteorologikoak... (19:00etan).

Kalitateak mugarik ez



ARGÍ-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabilioia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE



Goi-mailako Lanbide Heziketako B. Institutua
Miguel ALTUNA

Instituto E. de Formación Profesional Superior



2000/2001 ikasterterako HEZKUNTZA-ESKAINTZA

GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

- Administrazio eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena
- Plastikoa eta kautxugintza

ERDI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

- Mekanizazioa
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
- Administraritza kudeaketa

- Norberaren gaitasun eta nahien arabera egokitutako ibilbideak
- Behar diren baliabideekin
- Bide eta ate guztiak zabaltzen dituen ikasketak
- Eskola publikoa: integratzailea eta anitza

Aurrematrikula epea ZABALIK:

Ekainaren 1etik 12ra.

Ohiko matrikula epea:

Uztailaren 3tik 7ra.

Berri gehiago nahi baduzu deitu gure telefonoetara eta gure eskaintzari buruzko azalpenak emango dizkizugu.

Helbidea: Ibargarai, 1. Tel.: 943 76 24 91 / 943 76 38 40

TABERNA eta JATETXEEN GIDA

Zaraia taberna

**MANTEKA
ANAIAK**

*Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzura*

Araba Ibilbidea, 20 • 943 79 88 95

Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABAETA
Tel.: 943 79 85 57

Express akeitegia



Santa Kurtz, 16
☎ 943 79 23 43 zure gustoko giroa

Gurea taberna

Jatetxea eta
taberna

GUREA

Eguneko menuak

Durana kalea • 943 79 20 64

Dorleta taberna

Dorleta

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8 • ARETXABAETA
☎ 943 79 94 15

Arlutz taberna

TABERNA
ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABAETA • TFNOA: 79 32 34

Gustoko musika


Mitarte, 16
Tel.: 943 79 32 34

Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ☎ 943 79 92 01

Goyaran erretegia



GOYARAN ERRETEGIA

• Parrila espezialitatea

Solohaundi-8 ARETXABAETA ☎ 943 79 68 57

Mendiola erretegia

ESKORIATZA



Bazkariak
eta afariak

Asteleheneretan
itxita

Mendiola auzoa • Eskoriatza

Bazter alde jatetxea



Sasoiko
jakiak
giro
onenean

Galartza auzoa
☎ 943 79 24 58
ARETXABAETA

Amets taberna



Taberna eta kafetegia

Iparragirre, 4 • 943 79 01 29
Aretxabaeta

Basabe jatetxea

Menu eta afariak



Basabe poligonoa • 943 79 91 84

Josu harategia/taberna

*Josu
harategia
taberna*

- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Geratutako janariak

Mitarte, 1
Tel.: 943 77 03 08



Taberna Berri




Durana, 26 • ARETXABAETA
☎ 943 79 20 67

Urbaltz taberna



Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABAETA

32 urteko atxabaltar honek kazetaritza ikasketak egin eta publizitate arloan espezializatu zen. Orain bi hilabete Aretxabaletako Komunikabideak-Loramendi elkarteko zuzendari kargua hartu zuen. Gaur egun elkarte horren barruan Aretxagazeta aldizkaria bakkarririk dago.



Edorta Mendieta Aretxagazetako zuzendaria

■ Non egiten duzu lan?

■ Fagorren, komunikazio departamentuan nago.

■ Kazetari lanetan ere ibiltakoa zara...

■ Bai, kazetaritzako ikasketak egin eta publizitate arloan espezializatu nintzen. Ondoren, Euskal Telebistan bekadun gisa sartu nintzen lanean eta lau urte eman nituen bertan. Kiroletako albisteak ematen nituen Kirolez Kirol programan.

■ Zerk bultzatu zintuen Aretxagazetari baietza ematera?

■ Bultzatu, bultzatu, Mikel Uribebebarria Barrenak bultzatu ninduen. Ezetza ere esan niezaiokeen baina taldeetan borondatezko lana egiteko normalean jende gutxi egoten dela pentsatu eta baietza ematea erabaki

nuen. Gainera sekula ere ibili gabe nago horrelako elkarte batean eta probatzea gura nuen.

■ Zein da zure eginbeharra Aretxagazetan?

■ Bueno Aretxagazetan lan gehientsuena zeuk, langileok egiten duzue. Batzorde kideoi ahal den neurrian langileei laguntzea dagokigu. Nire eginbeharra, beraz, arazoren bat edo beste egoten bada aurpegia ematea izango litzateke. Dena dela oraindik ez dut lan haundirik izan.

■ Goiena jadanik martxan da. Nola ikusten da Aretxagazetan?

■ Bueno, baten batzuen aldetik ekintzak nahiko bideratuta daudela ematen du: lehenengo telebista, gero astekaria eta aurrera begira

beste proiekturen bat. Aretxagazetan, gure ideiak ditugu eta hori azaltzeko beste proiektu bat prestatu gura dugu. Momentu honetan dauden aldizkariak desagertu gabe proiektua aurrera eramatea izango litzateke gure ideia.

■ Beraz Goienako proiektuak aldizkariengan ahal den eta eraginik txikiena izatea gurako zenukete?

■ Bai, argi dago bailaran dauden aldizkari guztiak modu amankomunean bide beretik funtzionatzea mesedegarria izango dela, baina beti ere bakoitzak bere nortasuna eta herritarrengana gertutasuna mantenduz. Azken batean herriko jende-ari hurbileko albisteak, bertakoak, interesatzen zaizkio.

■ Zein erronka dituzue aur-

tengo urterako Aretxagazetan?

■ Bueno, aurtengo urtean garrantzitsuen Goienako proiektua izango da. Aretxagazetak, bestalde, oraindik badu bere eginkizuna herrian eta hori ondo bete gurako genuke. Momentuz lau orri gehitzeko asmoa dago eta gerora begira, Goienako proiektuaren arabera, astekari bihurtzeko ideia ere komentatu da. Egia da ez dagoen lekutik ezin dela albisterik atera baina astekari bihurtzea medio eta dedikazio kontua da. Goienako proiektua batorrela ikusita, gainera, astekariak zentzu haundia izango luke, Arrasate eta Bergaran ere astekariak baitaude. Honen aurrean astekari bihurtzearen ideia ondo pentsatu eta landu beharko dugu.

Gurasoak katekesira

Kurtso honetan parrokiari iaz egindako proiektorearen adar bat martxan jarri da eta erreflexio motz bat egin gura nuke horri buruz.

Azkenengo 30 urteetan fededunak ziren gurasoek parrokiara bidaltzen zituzten seme-alabak katekesian Jainkoa nor zen ikasteko. Gurasoek txikitan Jainkoarekiko sentitu zutena euren seme-alabei ez die transmititu gura eta hori da nire ustez, umeak katekesira bidaltzearen arrazoi nagusia, beste arrazoi batzuk badauden arren.

Pertsona bat baino gehiagok Jainkoa eta eliza, beldurra eta estutasunarekin lotzen dituzte eta ulergarria den bezala, ez dute irudi hori haurrenganatu nahi. Baina Jesusengan sinisten dute, Jesusek ekarri zigun Berri Ona, euren seme-alabentzat ikasgai ona dela pentsatzen dute. Arazoa zera da: ez dakite nola egin.

Zera adierazi gura dut: Jesusek eman zigun agindu garrantzitsua "Nik maite zaituztedan bezala, elkar maite ezazue" da. Eta fededunok hori guretzat Berri Ona dela uste dugu.

Lerro labur hauen bidez guraso guztiei esan gura diedana zera da: denok kapaz garela gure haurrei hau adierazteko, berrikeratxo bat eginez, edo ipuinen bidez,...

Arazoa, haurrek hau horrela dela sinisteko, katekesian entzuteaz gain, gurasoen bizitzetan ikusi eta egiaztatu egin behar dute. Haurrak ezin ditugu engainatu. Beharbada batzuzentzat hau da benetako arazoa.

Jesusen agindu hau katekesian ezin da ikasi. Fedea ez da ikasten, ikasgai bat balitz bezala. Gurasook bizi ditugun esperientziak, bihotz barruan sentitzen duguna adierazi behar diegu seme-alabei.

Guk irakasten diegu gure haurrei hitz egiten, ez dugu itxoiten eskolara joan arte berba egiteko, nahiz eta pentsatu hitz egiten dugun hizkuntza pobrea dela, lehenbailehen hasten gara gure seme-alabei hitzegiten. Eta honela egin behar da gainera. Fedearekin gauza bera egin beharko genukeela uste dut nik. Fededun izanik pertsonak bizitzeko, fedea behar duela sentitzen dut. Jesus gure laguna da, eta guk elkar maite dezagun irakasteko etorri zen mundura. Bihotz barruan sentitzen badugu, gu konturatu barik, seme-alabek eurenganatu egingo dute sentipen hori.

Mari Karmen GUTIERREZ



PAGALDAI

Opari denda
Lurrindegia

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta
mortzilak

Durana, 9
Tel.: 943 79 19 79

MAITE ileapaindegia

Sarasate, ☎ 943 79 59 05
ARETXABALETA

ARRITZEKO S.L.

Etxebizitzak
salgai Durana
kalean

Fueros, 26 5 of. 1
Tel.: 945 23 04 08
01005 VITORIA/GASTEIZ



Izugarrizko jendetza pilatu zen Muruko Kurtzearen inguruan.

Muruko kurtzeak 50 urte

Datorren ekainaren 4an 50 urte beteko ditu Muruko kurtzeak. Egun hori behar den moduan ospatzeko Zاراia mendizale taldea gogor dabil lanean. Bezperan, kurtzea argizatuta jarri gura da eta egunean bertan hainbat ekintza egingo dira. Lau lagun ere omendu gura dira, orain 50 urte kurtzea jartzeko lanean ibili ziren lau lagun. Eguraldiak laguntzen badu behintzat egun polita izango da.

Mendi tontorretan kurtzeak jarteko ohitura Leon XIV. Aita Santuak emandako aholku baten ondorioz sortu zen. Eta gure herria hain menditsua eta hain erlijioso izanik, berehala bete zen kurtzaz. 1901ean Eus-

kal Herriko hainbat menditan jarri zituzten. Gure inguruan, barrez, berandutxoago hasi ziren kurtzeak jartzen; Kurtzebarrin 1928ko irailean, geroago Asentsion eta azkenengo Murun.

UDako mendi sailekoak

izan ziren ideia bultzatu eta aurrera eraman zutenak, tartean Jose Galdos. Berak materiala lortuko zuela eta, jendea animatu guran hasi zen eta, baita lortu ere Josek. Lezama enpresak debalde eman zuen burdina. Hasiera batean Muru tonto-

rean montatzea pentsatu bazen ere, horrek zeukan lana ikusita, Beroako taileurretan egin zen muntaia. Mariano Otero, Jose Mari Izagirre eta Juan Ugalde ibili ziren lan horretan, buzoia, barrez, Santiago Mayoralek egin zuen.

Kurtzea burdinazkoa zen, 10 metroko altuerakoa. Egun berean jartzea eta inauguraketa ospatzea askotxo izango zela pentsatuta, aste bete lehenago eroan zuten, maiatzaren 28an hain zuzen. Sei idik bultzatutako gurdi gainean eroan ere, eta ton-torrean hiru euskarrirekin lotu zen lurrian. Ekainaren 3an, inauguraketa bezperan, petrolioizko farolak erabilita kurtzea argiztatuta egon zen.

Ekainaren 4an ospakizuna

Orain berrogeita hamar urte bezalaxe aurten ere domeka izango da ekainaren 4a. Egun hura akorduan dutenek badakite bero egin zuela, izugarriko beroa, baina tipirritaparra igo zen jendea kokildu barik Muruko ton-torrera. Ah ze jendetza gainera! Galartzako auzokideak listo ibili eta ura eskaintzen zieten mendigoizaleei, hori bai, diruaren truke.


Lehenengo, Galartzako abadeak, Leandro Arrazolak, meza eman zuen eta honen ostean finalistei dominak banatu zizkieten. Urtean zehar mendi irteera ugari antolatzen ziren eta finalistak, urteera horietan postu onenetan ibilitakoak izaten ziren. Maila ezberdinetan ematen ziren dominak, emakumezkoetan esate baterako, Miren Igartua izan zen irabazlea. Inauguraketaren ama puntakoa ere Miren bera izan zen. Kurtzean plaka bat ere jarri zuten: "Gurutzerik ez balitz, Euskal gailurretan ai zer bizi eziña, gaurko egunetan. Agur Gurutze Santu, Murugain onetan".

Kurtzea jarri eta handik egun gutxira, agintariek, plaka ofiziala jarri behar zela eta bestea kentzeko esanaz karta bidali zioten Mariano Oterori. Gogoz kontra, baina kentzeko agindu zuen horrek. Plaka etxean gorde eta aukera euki zuenian, barriro jarri zuen lehengo lekuan.


2000ko ekainaren 4a


Zaraia mendizale taldeak, UDAtik sortutako taldeak, orain 50 urteko ospakizuna gogoratu eta ospatu gura du. Bezperan kurtzea argiztatu gura da. "Orain 50 urte bezala, bezperan, kurtzea argiztatu gura dugu. Horretarako kurtze barruan zuriz margotutako ohol mehea sartuko dugu eta aurrean argiak jarriko dira. Oraindik ez dakigu argi indarra nola eraman, baina zerbait egingo dugu" dio Martin Garai Zaraia mendizale elkarteako arduradunak.

Egunean, bertan, barrez, goizeko 8,30etan Herriko plazan elkartuko da jendea Mururantz urteteko. Lehenengo kalejira egingo



"Orain 50 urte bezala, bezperan, kurtzea argiztatu gura dugu. Kurtze barruan zuriz margotutako ohol mehea sartu eta aurrean argiak jarriko dira"





da herrian eta ondoren Muruko igoerari ekingo zaio. 10etan Muruko tontorreen meza entzun ostean, omenaldi txiki bat egin gura zaie lau laguni, 1950. urtean kurtzea jarteko hainbeste ahalegin eta izerdi bota zituzten lau laguni: Mariano Otero, Juan Ugalde, Jose Mari Izagirre eta Santiago Mayorali. Plaka txiki bat ere jarriko da. Jose Mari Izagirre orain urte bete hil zen baina beste hirurak mendi tontorreen egongo dira. Juan Ugaldek, gainera, oinez igoteko asmoa dauka. Bukatzeko, 12ak inguruan, luntxa eskainiko da Galartzan jaira hurreratutako guztientzat.

Muru eta Galartzaren gaineko liburuska

50. urteurren hau aprobe txatuz, Mururen eta Galartza auzoaren gaineko liburuska kaleratuko da. Aitor Antxia Leturia ibili da datu

bilketan eta benetan istorio bitxiak jaso ditu bertan. Istorio hauek orain 50 urteko erretratuz lagunduta daude. Martinen esanetan: "1000 ale atarateko asmoa daukagu. Ez dakit nola banatuko dugun liburuska, baina herritar guztien eskura egongo da".

Bikote batek 50. urteurrena betetzea aipatzeko kontua da. Komertzio edo lan-tegi batek betetzea den bezala. Muruko kurtzeari ere uste gabe heldu zaio urrezko eztei eguna. Gaur balitz aise igoko litzateke kurtze hori, ikusi besterik ez dago bertan dauden telefonoko antenak. Baina orain berrogeita hamar urteko gizon-emakume haiek indar, izerdi eta batez ere ilusioz beterik igo zuten 10 metroko burdinazko kurtze hura. Horixe gogoratu eta ospatuko da 2000. urteko ekainaren 4 honetan.

Mururen gaineko historia eta istorioak



Orain 50 urteko erretratuez gain, garai eta momentu ezberdinetako istorioak jaso dira Muruko urrezko ezteiak direla eta kaleratuko den liburuan.

Kristo aurreko 1000. urtean jadanik herritxo bat ei zegoen Muruko tontorreen. Metal arokoa zen eta bertan egindako indusketen bitartez zeramikazko hainbat ontzi eta bitxi eskuratu dira. XV. mendeko dokumentuetan ere aipatzen da Murun izena. Galartza auzoan bestalde, gaur egun desagertuta dauden bi ermita egon ziren. Gerra zibil garaian ere paper garrantzitsua izan zuen Muruk. Bertan sozialistak egon ziren gorde-ta, dragoen batailoia hain zuzen. Bonbak jaurtkitzen zituzten mendi tontoretik eta gaur egun ere oraindik bala kaskiloak samur topa daitezke.

Mondragoiko dragoiaren istorioa ere jaso da. Izan ere Muruko lurrak Aretxabaleta, Arrasate eta Aramaiorenak dira eta kurtzea Aramaioko lurretan jarrita ei dago.



Txirrindularitza

Haur txirrindulari festa egingo da ekainaren 11n. Uda txirrindulari elkarteak haur txirrindulari festa antolatu du ekainaren 11rako. Parte-hartzaileak goizeko 10etan elkartuko dira partenoirekin, eta herri barruko zirkuito bati bi buelta emango diote. Ondoren hamaketakoa izango da parte-hartzaile guztientzat. Horren ostean, ginkana probetan dibertitzeko aukera paregabea izango dute txirrindulariek.



Piraguismoa

Piragua irteera egingo da Errobira. Murrukixo mendi elkarteak piraguismo sailak Errobira piragua irteera antolatu du datorren zapatarako, hilak 27. Oier Aranzabal taldekideak adierazi digunez, Errobi ibaiak aukera paregabeak eskaintzen ditu piraguan ibiltzeko eta hasierako asmoa behintzat ibaiaren zati batean aritzea da. Izen ematea Murrukixon egin daiteke, baina horretarako beharrezkoa da federatuta egotea.



Pilota

Herri arteko pilota torneoan atxabaltarrak aurrera doaz. Aretxabaletako pilotariek Herri arteko pilota torneoan lezotarrak gaudituz dituzte. Lezon 2-1 galdu zuten, eta etxean, ostera, 2-1 irabazi. Berdinketa horren ondoren, Aretxabaletak Lezok baino tantu gehiago izatean, aurrera jarraitu du. Hurrengo Tolosa izango du aurrez-aurre. Norgehiagoka hau gaudituz gero, final aurrekoetan izango litzateke Aretxabaletako taldea.



Mendia

Muruko gurutzearen 50. urteurrena antolatu du Zariaiak. Zariaia mendi taldeak ospakizun berezia egingo du ekainaren 4an. Egun horretan Muruko gurutzeari jarri zela 50 urte beteko dira, eta urteurren hori ospatzeko hainbat ekintza egingo da. Hauen artean, trikitilariak, meza, lunch-a, bertsolariak eta beste hainbat ekitaldi izango ditugu Murun. Horrez gain, hainbat omendu ere izango da egun horretan.

Ekainaren 11n herrian egingo den mendi martxaren antolatzaileetako bat da Goio Arrieta. Ilusioz eta gogoz ari da egun horretarako azken lantxoak egiten. Bere esanetan, ibilbide garbia eta atsegina da, eguraldiak laguntzen badu behintzat.

■ Nondik sortu zen mendi martxa hau egiteko ideia?

■ Buruan aspalditik genuen ideia eta urtarrileko Aretxagazeta batean Murrukixok bazkideei egindako deia irakurri genuen. Mendiarekin zerikusia duen ekintzak antolatzeko jendea behar zela esaten zuen elkarteak eta horregatik Murrukixora hurbildu ginen ekintza hau antolatzeko.

■ Kontaiguzuz antolaketa lanak nondik nora joan diren.

■ Lehenengo lana martxaren ibilbidea pentsatzea izan zen. Gure helburua ahalik eta jende gehienak parte hartzea zen. Beraz, garbi genuen 5-7 ordu bitarteko martxa izan behar zela, ez luzeagoa. Bigarren pausoa aurrekontua azertu eta dirua

nondik atera pentsatzea izan zen. Gai hauen inguruko informazioa jasotzeko Eskoriatzako martxaren arduradunengana jo genuen. Horren ondoren, finantzaketa bilatu zen. Bide batez, lerro hauetatik, gure eskerrak eman gura dizkiegu finantzaketan lagundu duten guztiei.

■ Eta harrezkero astero-astero elkartu zarete.

■ Bai, hala da. Guztia behar bezala antolatzeko, astero biltzen ari gara antolatzaileok.

■ Dagoeneko ibilbidea probatu duzue, zein ezaugarri ditu?

■ Bide garbia eta ez galtzeko modukoa bilatzen saiatu gara. Dena dela, hor eguraldiak zeresan handia izango du. Guztira 28 km ditu. Plazan hasi Oro, Larrino, Urkulu, Urrexola, Ugastei, Degurixa, Alabita, Leixargarate,

Goio Arrieta

I. mendi martxako antolatzailea

Arlutz, Kurtzebarri, Mendiola eta helmuga ere plazan egongo da. Hasieran aldatz batzuk baditu bideak, baina behin gora igotakoan lasai ibiltzeko modukoa da. Dena dela, martxa erosoagoa izan dadin, bi hamarretako ere izango dira.

■ Zenbat jende etortzea espero duzue?

■ Martxan 250 lagun izatea espero dugu, baina beti ere eguraldiak eragina izango du parte-hartzaile kopuruan. Antolatzaile lanetan 30 bat pertsona arituko gara egun horretan. Egia esan, jendeak laguntzerako orduan oso ondo erantzun du eta hori eskertu beharrezkoa da.

■ Jarraipenik izango du martxa horrek datozen urteetan?

■ Bai, bi urtetik behin antolatzeko asmoa daukagu, Eskoriatzan egiten den mendi martxarekin tartekatuz.

■ Eguna heltzeko desiatzen?

■ Egia esan bai, dena ondo bukatu eta Murualden bazkaltzen egongo garen momentua heltzeko gogoia daukat, ordurarte nerbioak beti aldean izaten baitira. Gu gure aldetik ahalik eta ondoen egiten saiatu gara. Eguraldiak laguntzen badu behintzat, giro polita izango dela uste dut.





Almeneko infantil mailako taldeak kopa irabazi zuen

Gipuzkoako kopan Almeneko infantilak garaile

Joan den maiatzaren 13an Almeneko infantil mailako futbol taldea kopako irabazle izan genuen. Finala Almen eta Kostkas Danak taldearen artean jokatu zen Arizkorretan, eta azkenean penaltietan erabaki

zen partidua. Izan ere, partidua husna amaitu zen eta penaltietan Almen 5-1 nagusitu zen.

Josu Iriarte eta Asier Murgoitiok zuzentzen duen taldeak, beraz, merezitako garaipena lortu zuen

aurrekoan. Egia esan, taldeak denboraldi bikaina egin du, eta egindako lanaren emaitzak merezitako fruitua ekarri zuen. Taldekideak pozik etxeratu ziren kopa aldean zutela. Zorionak!

■ **UDAK DENBORALDIARI AGURRA.** UDako talde gehientsuenek, preferenteak eta lehen mailako jubenilek ezik, bukatu dute aurtengo denboraldia. Preferenteak datorren astebukaeran jokatuko du denboraldiko azken partidua. Beti Ona taldearen aurka neurtuko ditu indarrak kanpokoen zelaian. Taldea 11. postuan dago, eta beraz, aurtengo liga erdi aldean amaituko du. Iñaki Ceciaga entrenatzaileak, bestalde, agur esango dio taldeari. Aurrerantzean Enrique Nieto bergararra arituko da taldea zuzentzen. Azken hau Udako jokalaririk izandakoa da denboraldi batean zehar.

■ **ERREGIONALAK MAILA JAITSI.** Lehen mailako erregionalak joan den astebukaeran eman zion amaiera denboraldiari. Azken partiduan Hamaikak bat taldearen aurka 4-1 galdu zuten Daniel Armentiaeren mutilek. Taldeak denboraldi kaskarra egin du eta sailkapenean 15. postuan bukatu ondoren, mailaz jaitsi da. Datorren denboraldian, beraz, 2. erregional mailan jokatuko du Udako taldeak. Armentiak, bestalde, entrenatzaile lanak utziko ditu baina oraindik ez dago jakiterik ordezkoa nor izango den.

Almeneko II. kirol jaia



Datorren zapatuan, hilak 27, II. kirol jaia ospatuko da Almenen, denboraldiko kirol ekintzei amaiera emateko helburuz. Jaia, haur, jokalaririk, entrenatzaile, delegatu, guraso, irakasle... zuzenduta egongo da. Goizean zehar bertara inguratzen direnek, une atsegin bat pasatzeko aukera izango dute, joko, partidu, tailer, eta sorpresa ugariaren artean.

Lasai

Mirian Manteca
MASAJISTA

Masaje terapeutikoan
Posturen azterketa eta
egokitzean
diplomatua

Lezama merkatal zentrua
Santa Kurtz, 24 etxabea
20550 Aretxabaleta

Tel.: 943 77 04 34

IRIARTE

Umeen
denda
eta
lentzeria



Durana, 8 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 10 96



Hiru atxabaltar G II mendiaren atzetik

Jesus Arregi, Eneka Guenetxea eta Luis Urkia Pakistaneko Karakoramera abiatuko dira datorren ekainaren 10ean. Helburu bakar bat dute hirurek buruan: Gasherbrum II, 8.035 metrokoa mendia igotzea.

Espedizio horren nondik norakoa joan den urteko abenduan hasi zen, Luisek G Ira joateko aukera zegoela jakin zuenean. Hiru lagunak beti buruan izan zuten ametsa bete zitekeela ikusi zuten orduan: 8.000ko bat igotzea. Jakina, zailena lanean baimena lortzea izango zen. Dena dela, hirurek lortu zuten baimena eta berehala prestakuntzei ekin zieten.

Iñurrategitarrekin abiatu

Pakistanera Iñurrategi anaiekin batera abiatuko dira hilaren 10ean. Azken hauek G I eta G IIa igo nahi dituzte baina talde bakoitza bere aldetik arituko da mendia egiterako orduan. Enekek dioen bezala, "hareik gasolinaz eta gu dieselaz". Behin hara heldutakoan, behe kanpamendurako bidea hartuko dute hiru mendizaleek. San Juanak aldera behe kanpamenduan izatea aurreikusten dute. Gero

denborak laguntzen duen heinean mendian gorantz joango dira, gainontzeko kanpamenduak jarriz. Tontorrerako saiakera uztailean izango da.


Mendian esperientzia

Jesusek, Enekek eta Luisek esperientzia haundia dute mendian, baina bakoitzak bere aldetik egin du orain arteko bidea. Jesus Himalayan izandakoa da. Makalu mendian egon zen Iñurrategi anaiekin, baina ez zuen 8000koa egiterik izan.

Eneka eskalatzailer trebea dugu. Azken urteotan eskalatzaren aritu da mendian baino gehiago. Mendiari dagokionez, Mont Blanc da probatu duen mendirik altuena.

Luisek, berriz, kontinente desberdinetako mendi altuak bisitatzeke aukera izan du azken urteotan. Pamirren 7000ko bi mendi igo zituen Jesusekin batera eta Chinako eta Ameriketako mendi altuetan ere ibilitakoa da...

Urtarrietik, bestalde, gogor entrenatzen dihardu hirukoteak. Egunero egunero elkartzen dira, gehienbat erresistentzia eta fondoak lantzeko.



Luis Urkia, Jesus Arregi eta Eneka Guenetxea.

Aurtengo oporraldia

Hiru protagonistentzat haxe izango da aurtengo oporretako bidaia. Nahiz eta ohikoa baino luzeagoa eta garestiagoa izan. Guztira hiru milioi pezetatik gora atera zaie espedizioa. Kontuan hartu behar da, gainera, materiala eta jantzi asko lagunek utzitakoak izan direla. Eskerrak horri dio Luisek, "lagundu

diguten guztiei gure esker ona doakie hemendik". Dena dela, laguntza batzuk jaso dituzten arren, norberaren poltsikotik ere dextente jarri behar izan du bakoitzak.

Kontuak kontu, hirukotea amets bat betetzeko ilusioz abiatuko da Pakistanera. Ea ba, aspaldian buruan bueltaka duten ametsa egi bihurtzen den. zorte on!

INDUSTRIA HORNIKUNTZAK



URKULU, S.L.

Mitarte, 23
Tfnoa: 943 79 96 66
Fax: 943 77 10 33

Etxabe
harategia

Durana 4
☎ 943 79 16 61



FELIX
PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
☎ 943 77 00 33/79 42 56

Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea

Angelines
AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 943 79 61 42



Etxeko Traste Zaharrak jasotzeko Zerbitzuaren

EGUTEGIA

• Zerbitzua hilean egun batetik bira pasatuko da Ekainetik aurrera.

• Trasteak jasotzeko egunak hileko 1. eta 3. Ostiralak izango dira

• Jai eguna izango balitz hurrengo Ostiralera pasatuko da.

• Goizeko 8-ak baino lehenago utzi behar dira trasteak, zaborra jasotzen den tokian.

• Abuztuan ez dago Zerbitzu hau.

■ Jasotzeko egunak.



Informazioa
943 79 33 99

EKAINA							UZTAILA							IRAILA						
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4					1	2				1	2	3		
5	6	7	8	9	10	11	3	4	5	6	7	8	9	4	5	6	7	8	9	10
12	13	14	15	16	17	18	10	11	12	13	14	15	16	11	12	13	14	15	16	17
19	20	21	22	23	24	25	17	18	19	20	21	22	23	18	19	20	21	22	23	24
26	27	28	29	30			24	25	26	27	28	29	30	25	26	27	28	29	30	
							31													
URRIA							AZAROA							ABENDUA						
A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I	A	A	A	O	O	L	I
						1			1	2	3	4	5				1	2	3	
2	3	4	5	6	7	8	6	7	8	9	10	11	12	4	5	6	7	8	9	10
9	10	11	12	13	14	15	13	14	15	16	17	18	19	11	12	13	14	15	16	17
16	17	18	19	20	21	22	20	21	22	23	24	25	26	18	19	20	21	22	23	24
23	24	25	26	27	28	29	27	28	29	30				25	26	27	28	29	30	31
30	31																			

Orain **TDdi**
berria 75 cv



Maiatzeko eskaintza berezia

1.3.i (3 ate) **1.224.000** pta.tik hasita (* Plan kanpaina eta Plan Prever barne)

DEBA GARAICO
BANATZAILE OFIZIALA

MUGARRI



Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54

Ludotekako arduraduna da Olaia Urzelai. Eskoriatzan haur hezkuntza ikasi zuen eta orain heziketa berezia ikasten dihardu. Umeekin lan egitea asko atsegin du, eta zer esanik ez, ludotekan oso gustura dago.

Olaia Urzelai

"Adin guztietako umeak atsegin ditut"



- Oraintsu hasi zara ludotekan lanean.
- Bai, Leirek aurreko arduradunak utzi egin behar zuela eta niri aurkeztu zidaten postua. Orduan Alecoop-en ari nintzen lanean eta hura utzi eta hemen hasi nintzen.
- Umeak gustuko izan behar dira horrelako lan batean jarduteko?
- Bai, asko. Betidanik udalekutan ibili izan naiz, hasieran ume moduan eta gero urte mordoxka bat egin ditut begirale moduan.
- Umeak gustatzeko bi arrazoi emaguzu.
- Umeen inguruan poztasuna eta alaitasuna egoten da beti, eta bestalde, beraiekin egotea ez da batere monotonoa.
- Zein adinetako umeak dituzu gustuko?
- Ez daukat adin konkreturik, denak atsegin ditut. Bakoi-tzak bere ezaugarriak ditu.
- Zein adinekoekin behar da pazientzia gehien?
- 8-9 urte ingurukoekin.
- Etorkizunean umeekin erlazionatutako lan bat egitea gustatuko litzazuke?
- Bai, irakasle izatea gustatuko litzaidake.
- Batzuetan nagusiak ere ume garela uste duzu?
- Bai, batzuetan gustatzen zaigu ume izatea.
- Zuk zeuk zenbat ume edukiko zenituzke?
- Dirua edukiz gero pila bat.
- Etxe handia beharko zenuke orduan.
- Bai, mansinoren bat edo.
- Lanetik kanpora zer egiten duzu?
- Nahiko lasaia naiz, pasiatu, eguzkia hartu...
- Zein da adinik idealena?
- Daukadana, adibidez.
- Hondartza ala mendia?
- Hondartza.
- Horoskopoa sinisten duzu?
- Ez, baina beti irakurtzen dut.
- Astebukaerarako plan bat?
- Juerga bat botatzea, magisterioko jaietan esaterako.
- Optimista ala pesimista zaitugu?
- Optimista.
- Beldurra zeri?
- Beldurti bat naiz. Bakardadeari adibidez.
- Zerk egiten zaitu zoriontsu?
- Ez da gauza haundirik behar ni zoriontsu egiteko.
- Non biziko zinake?
- Aretxabaletan gustura biziko nintzateke.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (2. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68



Zulia
Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 943 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 943 79 66 53 ARRASATE



Atxabaltarrak kirolean txapeldun

Urruti gelditu dira gure Zubizarreta eta Iñurrategi anaiak. Atzetik datozenak, ofizioz edo afizioz indartsu dabiltz behintzat. Alde batetik, hor dugu Erreala zulotik atera duen **Jose Javier Barkero**. Klemente, zoritxarrez, ez da azkene-rarte oharu, mutil horrek duen ezkerak ez duela Stoikov-en inbidiarik. Horren ondorioz, 13. gelditu da Erreala. Zorte txarra dakarrela 13ak? Niretzat 18a okerrago gelditu da, ez ala? Dena dela, aurten Errealak ez du behar haina eman. Akaso entrenatzaile txarra? Agian **Iñaki Cuciaga** fitxatzeko asmotan ibiliko dira. UDA behintzat utzi eta alde egin du. Txuri-urdinetik, txuri-urdinera ez da aldaketa handia.

Futboleatik mendira. **Goio, Sardan, Eraña** eta beste hainbat hor ei dabiltz juergak alde batera utzi eta martxetan zeharo murgilduta. Bateko Markinan, besteko Urretxun... Datorren astean, barrez, ez dute erronka makala Tolosan. Lau urtean behin egiten ei da Aralarko buelta hau eta zahartu baino lehen egin gura eta... Ni han egongo naiz helmugan azken animoak ematen, baina kotxe-

an joango naiz, jakina. Ez dago Himalayara joan beharrik, gorputzari eskarmentu on bat emateko, 14 ordutan joan eta joan.

Huskeria dira horren ondoan nire Ugazteiko pasitoxoa eta Kurtzebarriko igorerak. Ah! Baina ez dut ekainaren 4ko zitara hutsik egingo. Han izango naiz Murun ni ere. Eta Atxabaltan egingo den martxarako ere entrenatzen hasia nago.

Himalayaraino ez, baina ia kanpandorre pareraino igo zen **Dabid Berezibar**. Zerbeza kajen gainean trebe mantentzen jakin zuen, baita jolasa irabazi ere. Zoritxarrez, neska bakarra ausartu zen, **Amaia Garcia**. Giro polita izan zen euskararen egunean baina, egia esan, egunero ospatu beharreko eguna dela deritzot.

Eta hurrengo egunean, albarkak jantzi, bokadiloa hartu eta egun guztirako Ojala Zelaira joan nintzen. Baina hara nire sorpresa, tabladu bat besterik ez zegoen han, eta antolatutako ekintzak? eta entsalada? kaka zaharra! Zer egingo ete zieten horrenbeste letxugari? Zergatik ez zen tokatzen zen bezalaxe aurreko domekan egin?

M. J. Arce

Liburu berrien zerrenda

6 urtetik aurrera

- Zak zikoina/Joxemari Iturralde
- Walter Sismoley Eliseoko Zelaletan/Karlos Linazasoro
- Dantzariño haserre/Juan Kruz Igerabide
- Tono, haria eta armiarma/Antoni Cuadrench
- Ilargia edan zuen astoa/Renada Mathieu
- Koloreak/Enric Larreula
- Izei txikia/N. Willer

8 urtetik aurrera

- Gorritxo eta Beltxiko/Joxantonio Ormazabal
- Ondo joan/Juan Kruz Igerabide
- Marmokiñe/Gala Aierbe; J. Iturralde
- Diecisiete cuentos y dos pingüinos/Daniel Nesquens

12 urtetik aurrera

- Sueños del milenio
- El príncipe de la niebla/Carlos Ruiz Zafón
- Los imposibles: Guía para educar a tus padres/Joseph Von Westphalen

14 urtetik aurrera

- Cuenta saldada/Suso de Toro

Nobelak

- Connemara gure bihotzetan/Julen Gabiria
- El príncipe Siddharta: Las cuatro verdades/Ferruccio Parazzoli
- Amphitryon/Ignacio Padilla
- Adiós a las novias/Soledad Puértolas
- La Herbolera/Toti Martínez de Lezea

Joseba Lopez de Armentia

EUSKARA ZUZENTZEN

Hona hemen gaurko akatsa.

- Ama, joan ~~leikenaz~~ nire lagun baten etxera? (Txarto)
- Ama, joan **neike** nire lagun baten etxera?(Ondo)

Zelan erabili behar da gure euskalkian aditz hau?

- | | |
|---------|----------|
| - Neike | - Geike |
| - Heike | - Zeikie |
| - Zeike | - Leikie |
| - Leike | - Leikez |



Gaiizki: Ama, joan leikenaz nire lagun baten etxera?

Ondo: Ama, joan neike nire lagun baten etxera?

Denetik

Solarium-a salgai.
Prezioa: 45.000 pta.
Goizez deitu 943 79 68
63 telefono zenbakira.

Motorra erosiko nuke.
Tel.: 943 77 09 52 (Paul).

Bi salmahai eta apalategi
metalikoak salgai.
Tel.: 666957983.

Ziklomotor zahar baten
fitxa tekniko beharko
nuke. Tel.: 943 77 08 02.
(Joxean).

Opel Astra GSI 115 cv sal-
gai. 1993. urtekoa.
Txuria. Tel.: 943 77 09 23.
(Roberto).

Piragua salgai. Whip, it.
Arraunekin, "cubrebañe-
ra" eta bi globorekin.
130.000 pta.
Tel.: 943 79 78 36.

Opel Kadet GSI 2000 16 v
salgai. Egoera onean.
Tel.: 943 79 75 11/79 98
08 (Mikel).

Kotxea salgai Renault 21
TXE. Egoera onean.
Tel.: 943 79 68 63.

Buldog ingeles txuri bat
saltzen da. Bi urte ditu
eta oso zintzoa da.
Pedigri onekoa.
Tel.: 943 79 21 86. (Jon).

Iragarkiak

Sail honetan jartzen diren iragarkiak DOAN dira.
Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik.
Aretxagazetak ez du argitaratzen diren iragarkien
ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**Zure iragarkia honako txoko
honetan jarri nahi baduzu, deitu
943 79 86 21 telefonora
edo 943 77 18 54 erantzungailura.**

Boxer eta pastor aleman
arrazako txakurkumeak
salgai. Pedigriarekin.
Tel.: 696 057 346.

Gaixotasun arazoengatik
negozioaz ezin garelako
arduratu, martxan dago-
en denda alokatzen da
Aretxabaletan.
Tel.: 626 379 326.

Bigarren eskuko ordena-
gailu portatila erosiko
nuke. Tel.: 943 79 77 85.

Txahalak salgai kongela-
doran sartzeko.
Labeldunak eta natural
hasitakoak. Bildotsak ere
bai. Tel.: 689 541 861.

Peugeot 806a salgai. 7
plazatakoa. 2.0 gasolina.
Tel.: 607 15 30 70.

Ford Mondeo V 6 salgai.
Eguzki-sabaia, aleroiak
eta bajuak ditu. 2 urte,
72.000 km.
Tel.: 609576394.

Ford fiesta familiarra sal-
gai. 16 v. SS-BB.
Tel.: 943 79 91 27.

Etxebizitza

Logela bat alokatzen da,
pisu konpartitu batean
Arrasaten.
Tel.: 943 79 23 96.

57 m²ko garajea salgai
edo alokagai Errekaba-
rren kalean.
Tel.: 943 79 74 73.

Etxe bat erosi nahi da
Aretxabaletan.
Tel. 649 16 86 69.

Etxe bat alokatuko genu-
ke Aretxabaletan edo
Arrasaten.
Tel.: 646699843.

Garajea salgai/alokagai
Murubiden.
Tel.: 639418106.
(Ilunkaran deitu).

Herriko plazan lokal bat
saldu edo alokatzen da.
Tel.: 943 79 77 30. Egoera
onean.

Garaje bat salgai Otolara
kalean, 11. zenbakian.
Tel.: 943 79 04 95.

Pertsona batek Aretxaba-
letan pisu bat konparti-
tzeko beste pertsona bat
behar du. Egunez deitu:
943 74 80 00 telefonora
eta gauez 943 77 18 72
telefonora.



ERAIKUNTZA ETA INDUSKETAK

Tel.: 943 79 01 51
Basabe Poligonoa, 4 EQ-11 • ARETXABALETA

Zuzendaria:

*Lyonel
Arquero*

Dekorazioa:

*Soraya
Arquero*

BERALAN



KRISTALDEGIA

- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiak

Herriko plaza, 8 behea

943 79 81 78 ARETXABALETA

Lana

Uztailerako begiraleak behar dira udaleku irekietan lan egiteko.

Curriculumak Loramendi euskara elkartean, kultur etxean edo eta ludotekan entregatu behar dira.

Baldintza: 16 urtetik gorakoa izatea eta euskara jakitea.

Neska behar da Arrasaten umeak zaintzeko.

Tel: 943 77 04 31. (Inor ez badago utzi mezua).

Lan deialdi publikoak

Bergarako Udala. Lora-zaina. Epea: EAOn argitaratu eta hurrengo 20 eguneko epean. Oinarriak: 2000/05/8.

Elgetako Udala. Kirol teknikaria, administrari kontablea eta kultura, euskara eta turismo teknikaria. Epea: 2000/6/2.

Aretxabaletako Udala. Kontuhartzaitzako teknikaria. Enpresa zientzietako diplomatura. Lanpostu finkoa. Oinarriak: EAOean argitaratzeko zain.

Durangoko Udala. Injineru teknikoa. Epea: EAOn argitaratu eta hurrengo 20 eguneko epean. Oinarriak: GAO 2000/05/11.

Elorrioko Udala. Arkitektoa. Epea: EAOn argitaratu eta hurrengo 20 eguneko epean. Oinarriak: GAO 2000/5/11.

Debagoieneko mankomunitatea. Ingurugiro zerbitzuaren gidaria eta hondakin biltegiko alternatiboaren zaintzailea. Epea: 2000/6/1.

Eibarko Udala. Administralari laguntzailea. Epea: EAOn argitaratu eta 20 eguneko epean. Oinarriak: GAO 2000/5/12.

**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

MANTENIMENDUAREN PLANIFIKATZAILEA. Debagoiena. Erref.: 32544/1

IDAZKARIA. Donostia. Erref.: 32363/6

KONTUHARTZAILEA. Donostia. Erref.: 32651/2

2 MERKATU GESTORE. Donostia. Erref.: 32629/0

FRESADORAKO LANGILEA. Debagoiena. Erref.: 32620/2

INFORMATIKAKO IRAKASLE BI. Arabako lautada. Erref.: 32508/4

2 INKESTATZAILE. Arabako lautada. Erref.: 31815/1

INGELES ETA ALEMANEKO IRAKASLEA. Arabako lautada. Erref.: 32744/3

Langaiko lanpostu hauetako bat interesatuz gero, ondorengo telefonoetara dei daiteke:

Bastida akademia: Aintzane Gallastegi 943 79 35 33

Deba Garaiko Mankomunitatea: Alicia Martinez 943 79 30 90

Arrasateko Udala: Marga Garmendia 943 79 09 00

LEIBAR

arrandegia

Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79
ARETXABALETAKO

**GEMES**

- Depilazio elektrikoa
- Makilaia permanentea
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 943 79 99 18
Aretxabaleta

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tel.: 943 77 13 57

**AREANO**

nekazalturismo etxea

- Alojamendua
- Jangela zerbitzua
- Harrera hizkuntza desberdinetan
- Ikastaroak emateko tokia

Mendiola auzoa Tel.: 943 71 44 70 ESKORIATZA (sarrera Aretxabaletatik)

MAIATZA

26 EGUAKOTXA

■ HITZALDIA
KONTZERTUA

Juan Mari Beltranek Euskal Herriko soinu tresnen inguruko hitzaldi eta kontzertua eman- go du. 22:30ean udaletxe zaharrean.

■ KONTZENTRAZIOA
HERRIKO PLAZAN

Presoen eskubideen alde. 19:00etan.

27 ZAPATUA

■ DANTZAKO BATZAR-
RRA

Euskal dantzen taldean apuntatu direnek batzarr- ra izango dute dantzako lokalean (koartela) goizeko 11etan.

■ PIRAGUA IRTEERA

Murrukixo mendi elkar- teko piraguismo sailak piragua irteera antolatu du Errobi ibaira. Izen ematea Murrukixo elkar- tean egin daiteke. Federatuta egotea beharrezkoa izango da.

■ KIROL JAIA
ALMENEN

II. kirol jaia egingo da Almenen. Goizean parti- duak, tailerrak, gaztelu puzgarria, globoa eta sorpresa ugari izango da.

EKAINA

1 EGUENA

■ HITZALDIA

Patziku Perurenak kolo- reak euskal usarioan eta euskarak sorgindutako numeroak izena duen hitzaldia emango du. 19:00etan udaletxe zaha- rreko aretoan.

2 EGUAKOTXA

■ BATZAR OROKORRA
GAZTETXEAN

Gaztetxean batzar oroko- rra izango da. Besteak beste zerbitzari berrien aukeraketa egingo da eta Galartzako akordioaren azalpena. Arratsaldeko 18:30ean gaztetxean.

4 DOMEKA

■ MURUKO 50.
URTEURRENA

Zaraia mendi taldeak antolatuta hainbat eki- taldi izango da egun horretan Murun.

6 MARTIZENA

■ HITZALDIA

Bixente Serranok Nafarroako historiari buruzko hitzaldia eman- go du. 19:00etan udale- txe zaharrean. Horrez gain, aste osoan zehar Nafarroako histo- riaren erakusketa egon- go da.

8 EGUENA

■ HITZALDIA

Pello Zabalak eguraldia, tenporak, mapa meteo- rologikoak eta abarri buruzko hitzaldia eman- go du. 19:00etan udale- txe zaharrean.

LEHIAKETAK

■ ARRASATEKO KOMIKI
EZ SEXISTEN III.

LEHIAKETA

Arrasateko Udalak, Emakume sailaren bidez eta Gazteria eta Euskara sailen laguntzarekin, komiki ez sexisten III. lehiaketa anto- latu du. Lanak aurkezteko epea uztailearen 21ean ama- tuko da. Lanak aurkezteko lekua: Arrasateko Udala/Herriko plaza z/g/20500 ARRASATE.

BESTELAKOAK

■ EGONALDIAK FAMILIA
EUSKALDUNETAN

Habek antolatutako progra- ma honetan parte hartu ahal izateko, 18 eta 45 urte bitartean izan eta, gutxie- nez, euskalduntzearen 8. urratsari dagokion euskara maila egiaztatu behar da. Hilabete edo bi hilabeteko egonaldia izango da fami- lian, uztaila, abuztu eta irailean. Eskabide orriak aurkezteko epea ekainaren 5ean amaituko da eta helbi- de honetara aurkeztuko dira: HABE/Vitoria-Gasteiz kalea, 3/20018 DONOSTIA

BALOIAK (Hikaz berbetan)

ZORIONAK PATXI
ETA
LIRTE ASKOTARAKO!

BESTE
BAT?

ESKERRIKASKO

EDADIEN BURRERA
GOIEZAN ETA
OSASUNTEN BE
IGERTEN DON.

BUENOOO...

ONDIOKAN BERROGEI
BE EZTAUKEK
ETA EBAI HORRENARTE
KEJALI...

KEJALIKO
EZ NON BA?

ON BUKARREND NIÑE DALA,
HUIKRENSIEN BURUAKUE...
BADA KIN, BETI ZERBER.


BA,, NIÑE ONDO IRTEN
DUST ZURREKO"
AZIERKETIEK

MERI
EZ!

Zorion agurrak



Celia Garcia
Maiatzak 22
Zorionak eta
urte askotarako.
Familiakoak.



Pako Oskoz
Maiatzak 24
Aittitta Pako
zorionak. Markel
eta etxeokak.



**Saioa Elordui-
zapatarietxe**
Maiatzak 25
Zorionak eta
urte askotarako.
Etxekoak.



**Endika
Uribarren**
Maiatzak 25
Zorionak eta
muxu haundi
bat etxeokoen
partetik.



**Alaitz Beltran
de Heredia**
Maiatzak 28
Aupa familiako
gaztienari.
Zorionak.
Etxekoak.



Koldo Zubillaga
Maiatzak 29
Zorionak eta
urte askotarako.
Xabier, Leire eta
Celia.



Amaia Berezibar
Ekainak 1
Zorionak. Jai
batzordea eta
Aretxagaze-
takoen partetik.



Mikel eta Eskarne
Ekainak 3
Zorionak bikote. Urte askotarako izan
dadila. Egun eta bidaia zoragarri bat
opa dizue Aretxabaletako komunikabi-
deak elkarteko lantaldeak.



Txistuak • Txaloak

Aretxabaleta libertate osoa duen herria da gaur egun. Udalak ez du edozein gairen inguruan norberaren iritzia emateko eragozpenik jartzen. Horrez guztiaz gain, behin baino gehiagotan Udal gobernu batzordeak presoen eskubideen aldeko jarrera azaldu du. Hori dela eta ez dut ulertzen zein helburu duten herri guztian zehar egin diren pintadek. Herrian kartelak eta pānkartak jar daitezke, eta baita propaganda banatu ere. Hortaz, eraikuntza esanguratsuei eraso egin behar al zaie, denok onartzen, errespetatzen eta gureak egiten ditugun mezuekin? Txistua pintada horientzat eta animoak Keparen eta gainontzeko presoen aldeko eskubideak defenditzen jarrai dezagun, beti ere, aldamenekoa errespetatuz.



Jaiotakoak

■ Sarah Corres Zubillaga

Maiatzaren 4an.

■ Uxue Olabe Zufiria

Maiatzaren 8an.

■ Amaia Martinez

Jausoro

Maiatzaren 19an.

Hildakoak

■ Maria Luisa Azkarate

Arrese

Maiatzaren 13an/53 urte.

■ Brigida Belategi

Arriola

Maiatzaren 15ean/76 urte.

■ Marcelino Remedios

Salgado

Maiatzaren 21ean/80 urte.

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Euskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxio M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Ortzadar	943 79 01 84
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otalora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak

• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15



Z

Koruetako jaunartzea

azpi urte zituzten argazkiko neska-mutilek lehen jaunartzea egin zutenean. 1951. urtea zen. Lehen jaunartzea egin ondoren, erretratua Koruetako maistraren etxe aurrealdean atera zuten, guztiak formal-formal jarri eta Don Boni abarea erdian zela.

Orduko jaunartzetan neskek errozarioaz batera katekezi-

ko liburua eskuetan eramaten zuten. Mutilek, barrez, lepotik zintzilik gurutzua.

Horrez gain, foto zaharrea bi anai-arreba lutoz jantzita ditugu, urte hartan etxekoren bat hil zenaren adierazgarri.

Argazkian goian ezkerretik eskumara: **Jose Antonio Uribetxebarria, Javier Zubia, Daniel Uribetxebarria, Jose**

Uribetxebarria. Behean ezkerretik eskumara: **Esther Goikolea, Nati Altube, Jesusa Zubia, Don Bonifacio Arenaza (abarea), Ines Leibar, Conchita Errasti eta Maritxu Isasisasmendi.**

*Argazkia: Puri Altube
Informazioa: Puri Altube*



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55




ALDIBI AUTOAK, S.A.



Grupo
Norteka

Nissan Almera berria Ibilbideaz goza ezazu



Zigorrola kalea, 1
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 20 01
Fax: 943 79 65 65
e-mail: aldibi@nortekar.com

Olaso kalea, 23
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 74 20 37
Fax: 943 75 35 24
e-mail: aldibielhoibar@nortekar.com



Erakusketa aldaketarik...



- Logelak
- Egongelak
- Sofak

GRUPO

**Amuebladora
 Mondragonesa**

a eme Interiores
 Garibai 9. 943 79 15 03
Centro Hogar Muebles
 Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92
Sofa Leku
 Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 76 15 00
a eme Sukaldeak
 Zigarrola 1, 6 eta 10 pab. 943 77 14 92
ARRASATE

...%20tik %50era bitarteko deskontuak



a eme interiores
 Garibai 9. Tel.: 943 79 15 03